

3/2023 FORU ARAUA, abenduaren 28koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Fortuna Handien gaineko Aldi Baterako Elkartasun Zergarena

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako foru arau osoa jasotzen da bertan.

AURKIBIDEA

1. artikulua. Zergaren izaera eta xedea.	3
2. artikulua. Aplikazio eremua.	3
3. artikulua. Zerga egitatea.	3
4. artikulua. Ondasun eta eskubide salbuetsiak.	3
5. artikulua. Zergadunak.	3
6. artikulua. Espainian egoiliar ez diren zergadunen ordezkariak.	3
7. artikulua. Ondare elementuen titulartasuna.	4
8. artikulua. Zerga oinarria.	4
9. artikulua. Oinarri likidagarria.	4
10. artikulua. Zergaren sortzapena.	4
11. artikulua. Kuota osoa.	4
12. artikulua. Kuota osoaren muga.	5
13. artikulua. Atzerrian ordaindutako zergak.	5
14. artikulua. Ondarearen gaineko zergarengatik ordaindu beharreko kuota.	5
15. artikulua. Ondare erantzukizuna.	5
16. artikulua. Autoliquidazioa.	5
17. artikulua. Autoliquidazioa aurkeztera behartutako pertsonak.	6
18. artikulua. Arau-haustek eta zehapenak.	6
19. artikulua. Jurisdikzio ordena.	6

HITZAURREA

Apirilaren 3ko 9/2023 Legeak, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea, gauzatuta utzi du Ekonomia Itunaren 61. artikuluan aurreikusitako Batzorde Mistoak 2022ko abenduaren 27an egindako bileran lortutako akordioa, fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zerga ituntzeari buruzkoa.

Ituntze hori ahalbidetzeko, bosgarren xedapen gehigarri bat txertatu zen Ekonomia Itunean, eta bertan esaten da fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zerga, ondarearen gaineko zergaren osagarri dena, araudi autonomoko tributu itundu bat dela eta hura ordainarazteko garaian Ekonomia Itunean ondarearen gaineko zergarako ezarritako termino berdinei jarraituko zaiela. Era berean, xedatu zen ituntze horrek ondorioak izango dituela zerga hori indarrean dagoen ekitaldi guztietarako.

Alde horretatik, adierazi behar da 2022ko abenduaren 28ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara eman zela abenduaren 27ko 38/2022 Legea, energiaren gainean eta kreditu entitateen eta kredituko finantza establezimenduen gainean aldi baterako kargak ezarri, fortuna handien gainerako aldi baterako elkartasun zerga sortu eta zerga arloko zenbait arau aldatzen dituen. Lege horrek fortuna handien gainerako aldi baterako elkartasun zerga onetsi du estatuan, 2022. eta 2023. urteetan soilik aplikatzeko, nahiz eta aurreikuspena ere baden haren indarraldia amaitzean Gobernuak zergaren emaitzak ebaluatzea horiek baloratzeko eta, kasua bada, hura mantentzea edo ezabatzea proposatzeko.

Hortaz, aipatutako apirilaren 3ko 9/2023 Legean xedatutakoaren indarrez, Lurralde Historikoek eskumen arauemailea bereganatu dute fortuna handien gainerako aldi baterako elkartasun zergari dagokionez.

Itundutakoaren terminoak kontuan hartuta, fortuna handien gainerako aldi baterako elkartasun zerga berriaren araudia planteatzeko garaian, garrantzi handikoa da aintzat hartzea zerga horrek ondarearen gainerako zergaren izaera osagarria duela, Lurralde Historikoek badutelako, hain zuzen ere, azken horren gainean eskumen arauemaile osoa, araudi autonomoko tributu itundu bat denez gero.

Ondarearen gainerako zergak ibilbide luzea du Gipuzkoako Lurralde Historikoan, eta gaur egun ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauak erregulatzen du, Ondarearen gainerako Zergarenak. Foru arau horrek aldaketa ugari izan ditu denbora tarte txikian, haren testuan doikuntzak sartuz joan baitira Gipuzkoako Lurralde Historikoan indarrean dagoen ondare zerga areago definitzeko, eta zerga bizia bihurtu dute tributua, unean uneko errealitate sozioekonomikora egokitua.

Beraz, fortuna handien gainerako aldi baterako elkartasun zergak izaera osagarria duenez ondarearen gainerako zergarekiko, logikoa da haren egitura bat etortzea azken horrek daukanarekin.

Gauzak horrela, fortuna handien gainerako aldi baterako elkartasun zerga ondarearen gainerako zergaren egungo erregulaziora egokitzen da. Horretarako, zergaren elementu nagusiek zorrotz jarraitzen diote Gipuzkoako Lurralde Historikoan indarrean dagoen ondarearen gainerako zergaren erregulazioari hauek bezalako gaitan: aplikazio eremua, salbuespenak, zergaduna, zerga oinarria, oinarri likidagarria eta sortzapena.

Alde nagusia bi gai hauetan ageri da: batetik, zerga egitatean, zerga berriak 3.000.000 eurotik gorako ondare garbiak bakarrik zergapetzen baititu; eta, bestetik, karga tributarioaren diseinuan eta, bereziki, karga eskala edo kuota osoaren muga edo «ezkutu fiskala» diseinatzeko moduan; izan ere, horren ondorioz, zerga berriaren kuota osoa ondare garbi gehiagoko zergadunentzat bakarrik izango da ondarearen gainerako zergarena baino handiagoa, eta horrek zerga berriaren izaera osagarria uzten du agerian.

Era berean, zerga honek ondarearen gainerako zergarekiko duen izaera osagarri hori dela eta, zergadunei ondarearen gainerako zergan dagokien kuota kendu egingo da fortuna handien gainerako aldi baterako elkartasun zergaren kuotatik, ondasun eta eskubide berberak bi aldiz zergapetu ez daitezen.

Fortuna handien gainerako aldi baterako elkartasun zergaren autolikidazioa aurkezteko obligazioari dagokionez, esan beharra dago zerga kuotaren emaitza ordaintzekoa denean bakarrik aurkeztu beharko dutela zergadunek autolikidazioa.

Azkenik, nabarmentzekoa da azken xedapenetako bigarrenean aurreikusten den edukia. Izan ere, xedapen horrek dio Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dela indarrean, eta egun horretatik aurrera fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zerga sortzen den ekitaldietan izango dela aplikagarria, Ekonomia Itunaren bosgarren xedapen gehigarrian ezarritako terminoetan.

1. artikulua. Zergaren izaera eta xedea.

Fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zerga zuzeneko tributu bat da, izaera pertsonalekoa, ondarearen gaineko zergarekiko izaera osagarria duena eta zergadunen 3.000.000 eurotik gorako ondare garbia zergapetzen duena, foru arau honetan jasotako baldintzetan.

Zerga honen ondorioetarako, zergadunaren ondare garbia haren titulartasunpean dauden ondasun eta eskubide ekonomiko guztiek eratuko dute, ondasun eta eskubide horien balioa murrizten duten zamak eta kargak gutxituta eta zergadunak bere gain dituen zorrak eta obligazio pertsonalak kenduta.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru arau honetan xedatutakoa aplikaziozkoa izango da Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauak 2. artikuluan ezarritakoarekin bat.

3. artikulua. Zerga egitatea.

1. Zergaren sortzapenaren unean, zergaduna foru arau honen 1. artikuluan aipatzen den ondare garbiaren titular izateak eratzen du zerga egitatea, ondare hori 3.000.000 eurotik gorakoa denean.

2. Aurreko sortzapenaren unean zergadunaren jabetzakoak izandako ondasun eta eskubideak haren ondarearen parte direla joko da, salbu eta ondare eta eskubide horiek eskualdatu direla edo ondare galera gertatu dela frogatzen bada.

4. artikulua. Ondasun eta eskubide salbuetsiak.

Salbuetsita egongo dira zerga honetan Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauaren 5. eta 6. artikuluetan aipatzen diren ondasunak eta eskubideak.

5. artikulua. Zergadunak.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauan xedatutakoaren arabera ondarearen gaineko zergaren zergadun direnak izango dira, termino beretsuetan, zerga honen zergadunak.

6. artikulua. Espainian egoiliar ez diren zergadunen ordezkariak.

Zerga honen zergadunak ez badira egoiliar Europar Batasuneko beste estatu kide batean, zerga autolikidatzeko epea amaitu baino lehen, behartuta daude egoitza Gipuzkoako Lurralde Historikoan duen pertsona fisiko edo juridiko bat izendatzera, zerga honekiko betebeharretan haien ordezkari jardun dezan Zerga Administrazioaren aurrean.

Europar Batasunetik kanpokoak izanik Europako Esparru Ekonomikokoak diren estatuen kasuan, aurrekoa ez da aplikatuko baldin eta haietan zerga arloko informazio trukean edo zerga-bilketan elkarri laguntzeko araudia onartuta badago, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, jasotako terminoetan.

Betebehar hori bera zergadun egoiliarrek ere izango dute baldin eta, zerga egitatea behin gertatuta eta autolikidazioa aurkeztu baino lehen, Espainia uzten badute Europar Batasunetik kanpoko hirugarren estatu batera edo zerga arloko informazio trukean edo zerga-bilketan elkarri laguntzeko araudia onartua duen Europako Esparru Ekonomikotik kanpoko hirugarren herrialde batera joateko. Betebehar horretatik libratuko dira autolikidazio hori aurkezteko epea amaitu baino lehen itzultzen badira.

Izendapena Zerga Administrazioari komunikatzean, ordezkariaren onespren espresua erantsiko zaio.

7. artikulua. Ondare elementuen titulartasuna.

Ondare elementuen titulartasunari eta prezio geroratuarekin edo jabari erreserbarekin eskuratutako ondasun eta eskubideei dagokienez, Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauaren 9. eta 10. artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio.

8. artikulua. Zerga oinarria.

Zerga honen zerga oinarria zergadunaren ondare garbiaren balioa da, Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauak IV. kapituluan aurreikusitakoaren arabera zehaztua.

9. artikulua. Oinarri likidagarria.

Oinarri likidagarria Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauak V. kapituluan aurreikusitakoaren arabera kalkulatu da.

10. artikulua. Zergaren sortzapena.

Zergaren sortzapena urte bakoitzeko abenduaren 31n gertatuko da, eta zergadunak data horretan bere titulartasunpean duen ondareari eragingo dio.

11. artikulua. Kuota osoa.

Zergaren oinarri likidagarriari eskala honetako tasak aplikatuko zaizkio:

Oinarri likidagarria, gehienez Euroak	Kuota osoa Euroak	Oinarri likidagarriaren gainerakoa, gehienez Euroak	Tasa aplikagarria %
3.200.000	0,00	3.200.000	1,70
6.400.000	54.400	6.400.000	2,10
12.800.000	188.800	1.700.000	2,50

14.500.000	231.300	Hortik aurrera	3,50
------------	---------	----------------	------

12. artikulua. Kuota osoaren muga.

1. Obligazio pertsonalagatik zergaren mende dauden zergadunen kasuan, zerga honen kuota osoa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondare zergaren kuota osoekin batera, ezingo da izan pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga oinarri orokorraren eta aurrezpenari dagokionaren 100eko 60 baino handiagoa.

Artikulu honetan aurreikusitako kalkuluaren ondorioetarako, Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauan kuota osoaren mugari buruz ezarritako arauak aplikatuko dira; hala ere, hiru zergen kuotak batzean apartatu honen lehen paragrafoan ezarritako muga gainditzen bada, zerga honen kuota muga horretaraino murriztuko da, baina murriztapena ezin izango da 100eko 80tik gorakoa izan.

2. Familia unitateko kideek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergen batera tributatzea aukeratu badute, zerga horren, ondare zergaren eta zerga honen baterako kuota osoen muga kalkulatzeko, kide horiek azken bi zerga horietan sortutako kuota osoak metatuko dira. Murriztapena aplikatu behar bada, zenbatekoa zergadunen artean hainbanatuko da, zerga honetan bakoitzari dagokion kuota osoaren proportzioan, aurreko apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe.

13. artikulua. Atzerrian ordaindutako zergak.

Zerga ordaintzeko obligazio pertsonala dagoen kasuetan, eta nazioarteko itun edo hitzarmenetan xedatutakoa eragotzi gabe, zerga honetan aplikatzekoa izango da atzerrian ordaindutako zergengatik aurreikusten den kenkaria, Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako terminoetan.

14. artikulua. Ondarearen gaineko zergarengatik ordaindu beharreko kuota.

Aurreko apartatuetan xedatutakoaren arabera kalkulaturako kuotatik kendu egingo da sortzapen horri dagokion ondarearen gaineko zergaren kuota.

Inola ere ez da itzuliko aurreko paragrafoetan aurreikusitako kalkuluek eman dezaketen emaitza negatiboa.

15. artikulua. Ondare erantzukizuna.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauaren 35. artikuluan ondare erantzukizunari buruz jasotzen den erregela aplikatuko da.

16. artikulua. Autolikidazioa.

1. Zergadunak behartuta daude autolikidazioa aurkeztera eta, hala badagokio, zerga zorra ordaintzera Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak foru agindu bidez erabakitzen dituen leku, modu eta epeetan.

2. Zerga zorra ordaintzeko, ondasunak edo eskubideak entregatu ahal izango dira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 59. artikuluko 2. apartatua ezarritakoari jarraituz.

17. artikulua. Autolikidazioa aurkeztera behartutako pertsonak.

Zergadunek autolikidazioa aurkeztu beharko dute baldin eta haren emaitza, zergaren arauari jarraituz zehaztua eta bidezko kenkariak behin aplikatuta, ordaintzekoa bada.

Zergadunek autolikidazioetan dagozkien datu guztiak bete beharko dituzte, eskatzen zaizkien dokumentu eta frogagiriak erantsi, eta Ogasun eta Finantza Departamentuko titularrak foru agindu bidez erabakitzen dituen lekuetan aurkeztu.

18. artikulua. Arau-haustea eta zehapenak.

Zerga honekin lotuta egiten diren arau-haustea kalifikatu eta zehatzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) aplikatuko da.

19. artikulua. Jurisdikzio ordena.

Bide ekonomiko-administratiboa agortu ondoren, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da foru arau honetan aipatzen diren gaietako edozein dela eta Zerga Administrazioaren eta zergadunen artean gerta daitezkeen egitezko eta zuzenbidezko eztabaidak ebazteko jurisdikzio eskudun bakarra.

Lehen xedapen gehigarria. Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauaren xedapen gehigarriak.

Fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zergari Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauaren 3. eta 4. xedapen gehigarrietan xedatutakoa aplikatuko zaio.

Bigarren xedapen gehigarria. Izatezko bikoteak.

Foru arau honen ondorioetarako, testu honetan izatezko bikote esaten den guztietan Izatezko bikoteak arautzen dituen Eusko Jaurlaritzaren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako bikoteak aipatzen ari direla joko da.

Era berean, ulertuko da erreferentzia horiek beste autonomia erkidego batzuetako, Europar Batasuneko beste estatu batzuetako, Europako Esparru Ekonomikoko edo hirugarren herrialdeetako erregistro publikoetan antzeko moduan eratu eta inskribatutako izatezko bikoteei ere egiten zaizkiela.

Orobat, ezkontza bidezko ahaidetasun harremanei buruzko aipamenek izatezko bikotetik eratorritakoak ere hartuko dituzte barne.

Azken xedapenetako lehena. Arauak emateko ahalmena.

Foru Aldundiak eta, foru arau honek hala ezartzen duenean, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak, behar diren xedapen guztiak emango dituzte foru arau hau garatu eta aplikatzeko.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea eta aplikatzea.

Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta data horretatik aurrera fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zerga sortzen den ekitaldietan aplikatuko da, Ekonomia Itunaren bosgarren xedapen gehigarrian ezarritako terminoetan.